

7/2014 INSTRUKZIOA

**NORK: OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA
NAGUSIA****NORI: GERENTZIAKO ZUZENDARITZAK****ERIZAINZAKO ZUZENDARITZAK****PERTSONALEKO ZUZENDARITZAK****GAIA: LABORATEGIKO, ERRADIODIAGNOSTIKOKO, ANATOMIA PATOLOGIKOKO, MEDIKUNTZA NUKLEARREKO, ERRADIOTERAPIAKO, AHO-HORTZETAKO HIGIENEO, DIETETIKA ETA NUTRIZIOKO, OSASUN-DOKUMENTAZIOKO ETA AUDIOPROTESIETAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTEN KONPETENTZIAK ETA FUNTZIOAK**

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren 2008ko maiatzaren 20ko 1/2008 zirkularraren bidez, "Osasuneko goi-mailako teknikari espezialistei dagozkien funtzioen esparruan Lanpostu Funtzionalen Dekretua aplikatzeko irizpideak" finkatu ziren.

Osasun eta Kontsumo Ministerioaren 1984ko ekainaren 14ko Aginduak Osasun-alarreko Bigarren Mailako Lanbide Heziketako Laborategiko, Erradiodiagnostikoko, Anatomia Patologikoko, Medikuntza Nuklearreko eta Erradioterapiako teknikari espezialisten konpetentziei eta funtzioei buruzko arau-aurreikuspenak ezarri zituen, eta haien arabera egokitu behar ziren zerbitzuak. Horregatik egin zen zirkularra.

Helburua hau izan zen: Agindu horretako 3. eta 4. artikuluetan jasotzen diren funtzioak betetzen dituzten profesionalak atxikitzeko irizpideak martxan jartzea. Hona hemen funtzioak:

"3. artikulua. Profesional horien funtzioa hau izango da: diagnostiko-teknikak —eta, Erradioterapiako teknikarien kasuan, tratamendu-teknikak— fidagarritasun, egokitasun eta kalitaterik handiena bermatuz erabiltzen laguntzea eta aplikatzea, duten lanbide-heziketaren ondorioz.

4. artikulua. Aurreko artikuluan deskribatutako funtzioa erarik egokienean betetzeko, lehen artikuluan aipatzen diren Osasun-alarreko Bigarren Mailako Lanbide Heziketako teknikari espezialistek lan hauek egin ahal izango dituzte, betiere fakultatiboek zuzenduta eta gainbegiratuta:



1. Bere ardurapean dituen ekipo eta materialak erabiltzea, kontrolatzea eta haien inbentarioa egitea, funtzionamendua eta doikuntza egiaztatzea, garbitzea eta kontserbazio-lanak egitea, prebentziozko mantentze-lanak egitea eta konponketak kontrolatzea.
2. Teknikek ongi funtzionatzeko eta erabiltzeko behar den materialaren eta ordezkotze piezen inbentarioa egitea eta hornidurak kontrolatzea.
3. Laginak hartzen, laginak maneiatzen eta prozedura teknikoak eta haien kalitate-kontrola egiten laguntzea, beren trebakuntzaren eta espezialitatearen ondorioz horretarako gaituta daudenean.
4. Prozedura teknikoak behar bezala egiteko, pazienteei informazioa ematen eta pazienteak prestatzen laguntzea.
5. Laginak, prestakinak, emaitzak eta erregistroak gordetzea, kontrolatzea eta artxibatzea.
6. Teknika berriak muntatzen laguntzea.
7. Bere asistentzia-zerbitzuko edo -unitateko, edo bere erakundeko, trebakuntza-programetan laguntzea eta parte hartzea.
8. Langileari dagokion espezialitate teknikoarekin lotutako ikerketa-jardueretan parte hartzea, eta beste osasun-profesional batzuei laguntzea ikerketetan."

Aipatutako Agindu horretako xedapen gehigarriak honako hau xedatzen zuen:

"Agindu hau indarrean sartutakoan, Osasun-alorreko Bigarren Mailako Lanbide Heziketako titulua, kasu bakoitzari dagokion espezialitatean, izan beharko da nahitaez, laugarren artikuluan arautzen diren funtzioak eta jarduerak gauzatzeko plaza berri eta hutsak betetzeko."

Auzitegi Gorenaren 1988ko apirilaren 27ko epaiak xedapen hori baliogabetu zuen. Hala, aukera eman zitzairen kasuan kasuko espezialitatea zuten OLTei laborategiko teknikari espezialisten plaza huts eta berrietara sartzeko, baldin eta plaza horien eginkizuna 1984ko ekainaren 14ko Aginduaren 4. artikuluko 3., 4., 6. eta 7. ataletan araututako funtzioak eta jarduerak gauzatzeko bada.

Bestalde, hau adierazten zen Lehenengo Xedapen Iragankorrean: "Agindu hau indarrean sartutakoan, osasun-erakundeetan teknikari espezialista gisa zerbitzu

ematen diharduten OLTak, erizaintzako diplomadunak eta klinika-laguntzaileak ezingo dira, arrazoi hori dela eta, lanpostuz aldatzera behartu eta beren lanpostuetan jarraituko dute; izan ere, arrazoi horren ondorioz, ezingo da deialdirik egin teknikari espezialisten plaza berriak betetzeko."

Aipatutako arauan xedatutakoaren arabera, teknikari espezialisten funtzioak hauek baino ezin dituzte bete: dagokien espezialitateko teknikari espezialistek, dagozkien espezialitateko OLTek edo Agindua indarrean sartu zenean teknikari espezialista gisa zerbitzu ematen ziharduten OLT, erizaintzako diplomadun eta klinika-laguntzaileek.

Gerora, Kualifikazio Profesionalen Katalogo Nazionala osatuz joan da osasungintzako familia profesionalaren barnean, eta trebakuntzari buruzko zenbait errege-dekretu onartu dira, teknikarientzako espezialitate berriak sortu dira eta lehendik zeudenak errealitate tekniko berrietara egokitu dira.

Espezialitate bakoitzeko goi-mailako osasun-teknikarien kompetentziak eta funtzioak, 1984ko ekainaren 14ko Aginduaren 3. eta 4. artikuluetan arautzeaz gainera, ondoren onartu diren errege-dekretuetan ere araututa daude (1087/2005 ED, irailaren 16koa; 1087/2005 ED; 548/2011 ED; 887/2011 ED; eta 140/2011 ED, otsailaren 4koa); edo aldaketa teknikoetara egokitzeko haiek ordezkatzeko dituztenetan ere araututa egongo dira. Aipatutako errege-dekretuetan sartzen diren kompetentzia eta funtzioak teknikari espezialistek dagozkien funtzioak dira.

Bestalde, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzko 2003ko azaroaren 21eko 44/2003 Legeak, 3. artikuluan, lanbide-heziketako osasun-alorreko profesionalen kontzeptua definitu zuen, eta goi-mailakoen artean sartu zituen Anatomia Patologikoan eta Zitologian, Dietetikan, Osasun Dokumentazioan, Aho-hortzetako Higieanean, Diagnostikorako Irudian, Erradioterapian, Diagnostiko Klinikoko Laborategian eta Audioprotesietan goi-mailako teknikariaren titulua dutenak.

Halaber, Erizaintzako espezialitateei buruzko 2005eko apirilaren 22ko 450/2005 Errege Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarrian, lehenbiziko atalean zerrendatzen diren espezialitateak ezabatzea ebatzi zen.

2005eko uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen, indarrean dagoen araudira egokitu behar da.

Aipatutako dekretuaren egokitzapenak egiten diren neurrian, bete beharrekoa da 1/2008 Instrukzioa berariaz indargabetzen duen instrukzio honetan xedatutakoa.

Horregatik guztiagatik, honako instrukzio hau ematen da:

INSTRUKZIOA:

Lehena.-Laborategiko, anatomia patologikoko, dietetikako eta osasun-dokumentazioko zerbitzu edo unitateetan, aho-hortzetako higieneko, erradioterapiako eta erradiologiako kontsultetan —ekografia-aretoak barne— eta otorrinolaringologiako kontsultetan (audioprotesiak), 1984ko ekainaren 14ko Ministerio Aginduaren 3. eta 4. artikuluetan deskribatzen diren funtzioak, bai eta gerora onartu direnetatik — 548/1995 ED, apirilaren 7koa; 1087/2005 ED, irailaren 16koa; 887/2011 ED, ekainaren 24koa; eta 140/2011 ED, otsailaren 4koa—, edo aldaketa teknikoetara egokitzeko haiek ordezkatzeko dituztenetik, eratortzen diren funtzioak hemen zehazten diren Osakidetzako profesional hauek baino ezingo dituzte bete:

- Osasun-teknikari espezialisten lanbide-taldeko langileak (C1), dagokion osasun-alorreko Goi Mailako Lanbide Heziketako titulazioa dutenak.
- Osasun-diplomatuen lanbide-taldeko langileak eta erizaintzako kategoriakoak, 1984ko ekainaren 14ko Agindua indarrean sartu aurretik aipatutako unitateetan zihardutenak, zeinak, 1984ko ekainaren 14ko Aginduaren Hirugarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoaren arabera, ezin baitira lanpostuz aldatu eta betetzen zituzten funtzioetan jarraituko baitute.
- Espezialista-titulua duten erizaintzako langileak, baldin eta teknikari espezialisten funtzioak betetzen diren unitateetan espezialitateari dagozkion lanpostu funtzionalak bazituzten 2005eko apirilaren 22ko 450/2005 Errege Dekretua —erizaintzako espezialitateak indargabetzen dituen— indarrean sartu aurretik.
- Teknikari laguntzaile sanitarioen lanbide-taldeko langileak (D1) eta erizaintzako kategoriakoak, 1984ko ekainaren 14ko Agindua indarrean sartu aurretik aipatutako unitateetan zihardutenak, zeinak, 1984ko ekainaren 14ko Aginduaren Hirugarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoaren arabera, ezin baitira lanpostuz aldatu eta betetzen zituzten funtzioetan jarraituko baitute.

Bigarrena.- Pertsonaleko zuzendaritzek neurriak hartuko dituzte Instrukzio hau nahitaez betetzeko, eta guztiz indarrean egongo da aurtengo azaroko lehenengo hamabostalditik aurrera. Dena dela, Instrukzio hau sinatzen denetik aurrera sortzen diren behar guztiak betetzeko, hurrengo atalean xedatutakoa bete behar da.

Hirugarrena.- Zerbitzu-erakundeek bermatu behar dute ezen, langileak ordezkatzeko edo langile berriak sartzeko 1984ko ekainaren 14ko Ministerio Aginduaren 3. eta 4. artikuluetan jasotzen diren funtzioak eta lehen aipatutako trebakuntzako errege-

dekretuetatik eta/edo haiek ordezen dituztenetatik eratortzen diren funtzioak bete behar badira, teknikari espezialista sanitarioen lanbide-taldeetako langileak baino ez direla hartuko kontuan, salbuespenik gabe.

Laugarrena.- Instrukzio honek maiatzaren 24ko 1/2008 Instrukzioa indargabetzen du, eta nahitaez bete beharrekoa izango da sinatzen den egunaren biharamunetik.

Gasteizen, 2014ko uztailaren 7an.



 **Osakidetza**
ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR GENERAL

Izpta.: Jon Etxeberria Cruz
Osakidetzako zuzendari nagusia

INSTRUCCIÓN Nº 7 /2014

DE. DIRECCIÓN GENERAL DE OSAKIDETZA**A: DIRECCIONES GERENCIA****DIRECCIONES DE ENFERMERÍA****DIRECCIONES DE PERSONAL****ASUNTO: COMPETENCIAS Y FUNCIONES DE LOS TÉCNICOS ESPECIALISTAS DE LABORATORIO, RADIODIAGNÓSTICO, ANATOMÍA PATOLÓGICA, MEDICINA NUCLEAR, RADIOTERAPIA, HIGIENE BUCODENTAL, DIETÉTICA Y NUTRICIÓN, DOCUMENTACIÓN SANITARIA, Y AUDIOPROTESIS.**

Mediante Circular nº 1/2008, de 20 de mayo de la Dirección General de Osakidetza se fijaron los "Criterios para la aplicación del Decreto de Puestos Funcionales en el ámbito de las funciones encomendadas al personal Técnico Superior Especialista Sanitario".

La misma obedecía a la necesidad de adaptación de los respectivos servicios a las previsiones normativas fijadas por la Orden del Ministerio de Sanidad y Consumo de 14 de junio de 1984, sobre competencias y funciones de los Técnicos Especialistas de Laboratorio, Radiodiagnóstico, Anatomía Patológica, Medicina Nuclear y Radioterapia, de Formación Profesional de Segundo Grado, Rama Sanitaria.

Su objeto fue el de proceder a la puesta en práctica de los criterios de adscripción de los profesionales que desempeñan las funciones contempladas en los artículos 3 y 4 de dicha Orden, los cuales se reproducen:

"Art. 3º La función a desarrollar por dichos profesionales será el contribuir a utilizar y aplicar las técnicas de diagnóstico, y de tratamiento en el caso de los Técnicos de Radioterapia, de tal forma que se garantice la máxima fiabilidad, idoneidad y calidad de las mismas, en virtud de su formación profesional.

Art 4º Para el óptimo desarrollo de la función descrita en el artículo anterior, los Técnicos Especialistas de Formación Profesional de Segundo Grado, Rama Sanitaria, relacionados en el artículo primero, serán habilitados para realizar, bajo la dirección y supervisión facultativa, las siguientes actividades:

1. Inventario, manejo y control, comprobación del funcionamiento y calibración, limpieza y conservación, mantenimiento preventivo y control de las reparaciones del equipo y material a su cargo.
2. Inventario y control de los suministros de piezas de repuesto y material necesario para el correcto funcionamiento y realización de las técnicas.
3. Colaboración en la obtención de muestras, manipulación de las mismas y realización de los procedimientos técnicos y su control de calidad, para los que estén capacitados en virtud de su formación y especialidad.
4. Colaboración en la información y preparación de los pacientes para la correcta realización de los procedimientos técnicos.
5. Almacenamiento, control y archivo de las muestras y preparaciones, resultados y registros.
6. Colaboración en el montaje de nuevas técnicas.
7. Colaboración y participación en los programas de formación en los que esté implicado el servicio o unidad asistencial, o en los de la Institución de la que forme parte.
8. Participar en las actividades de investigación relativas a la especialidad técnica a la que pertenezcan, colaborando con otros profesionales de la salud en las investigaciones que se realicen.”

La Disposición Adicional de la citada Orden disponía lo siguiente:

“A partir de la entrada en vigor de la presente Orden será requisito indispensable para acceder a las vacantes y nuevas plazas que supongan el ejercicio de las funciones y actividades reguladas en el artículo cuarto, el estar en posesión del título de Formación Profesional de Segundo Grado, Rama Sanitaria, en la especialidad que a cada caso corresponda.”

La Sentencia del Tribunal Supremo de 27 de abril de 1988 anuló esta Disposición, abriendo la posibilidad a las ATS con la correspondiente especialidad de acceder a las vacantes y nuevas plazas de Técnicos Especialistas de Laboratorio que supongan el ejercicio de las funciones y actividades reguladas en los apartados 3, 4, 6 y 7 del artículo 4 de la Orden de 14 de junio de 1984.

Por su parte, la Disposición Transitoria Primera señalaba que “Los ATS, Diplomados en Enfermería y Auxiliares de Clínica que a la entrada en vigor de la presente Orden se encuentren prestando servicios en Instituciones Sanitarias, en funciones propias de Técnicos Especialistas, no podrán ser trasladados forzosamente por este motivo y conservarán sus puestos de trabajo, que no podrán convocarse por este motivo, como nuevas plazas de Técnicos Especialistas.”

En virtud de lo dispuesto en la citada norma, las funciones propias de los Técnicos Especialistas solo pueden ser desempeñadas por Técnicos Especialistas con la especialidad correspondiente, ATS con la correspondiente especialidad o ATS, Diplomados en Enfermería y Auxiliares de Clínica que a la entrada en vigor de dicha Orden se encontraran prestando servicios en funciones propias de Técnicos Especialistas.

Posteriormente se ha ido completando el Catálogo Nacional de Cualificaciones Profesionales dentro de la Familia profesional Sanidad, aprobándose sucesivos Reales Decretos Formativos, creando nuevas especialidades para los Técnicos y adaptando las existentes a las nuevas realidades técnicas.

Las competencias y funciones de los Técnicos Superiores Sanitarios de las diferentes especialidades, además de en los artículos 3 y 4 de la Orden de 14 de Junio de 1984, se encuentran reguladas en los sucesivos Reales Decretos formativos aprobados (RD 1087/2005 de 16 de Septiembre, RD 1087/2005, RD 54872011, RD 887/2011 y RD 14072011, de 4 de Febrero) o en los que los sustituyan por adaptación a los sucesivos cambios técnicos que se produzcan. Las competencias y funciones contempladas en los citados Reales Decretos son funciones propias de técnicos especialistas.

Por su parte, la Ley 44/2003, de 21 de noviembre, de Ordenación de las Profesiones Sanitarias, en su artículo 3º, definió el concepto de profesionales del área sanitaria de formación profesional, encuadrando dentro del grado superior a quienes ostenten los títulos de Técnico Superior en Anatomía Patológica y Citología, en Dietética, en Documentación Sanitaria, en Higiene Bucodental, en Imagen para el Diagnóstico, en Radioterapia, Laboratorio de Diagnostico Clínico, y en Audioprótesis.

Asimismo, la Disposición Adicional Segunda del Real Decreto 450/2005, de 22 de abril, sobre especialidades de Enfermería, determinó la supresión de las especialidades que enumera en su apartado primero.

El Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los Puestos Funcionales del Ente Público de Derecho Privado Osakidetza-Servicio vasco de salud debe de adecuarse a la normativa vigente.

En tanto se produzcan las adaptaciones del citado Decreto, debe cumplirse lo dispuesto en esta Instrucción que deroga, expresamente, la Instrucción 1/2008.

Por todo ello, se viene a dictar la siguiente

INSTRUCCIÓN:

Primero.-En los Servicios o Unidades de Laboratorio, Anatomía Patológica, Dietética, Documentación Sanitaria, Consultas de Higiene Bucodental, Radioterapia, Radiología incluidas las salas de ecografía, consultas de otorrino (audioprótesis) las funciones descritas en los artículos 3 y 4 de la Orden Ministerial de fecha 14 de junio de 1984, así como las funciones que se deriven de los aprobados, RD 548/1995, de 7 de Abril, RD 1087/2005 de 16 de Septiembre, , RD 887/2011, de 24 de Junio y RD 140/2011, de 4 de Febrero o en los que los sustituyan por adaptación a los sucesivos cambios técnicos que se produzcan, únicamente serán desempeñadas por los profesionales de Osakidetza que a continuación se determinan:



- Personal del Grupo Profesional de Técnicos Especialistas Sanitarios (C1), con titulación de Formación Profesional Superior del área sanitaria correspondiente.
- Personal del Grupo Profesional de Diplomados Sanitarios y categoría de Enfermera/o, destinado en las unidades referenciadas con anterioridad a la entrada en vigor de la Orden de 14 de junio de 1984, que con base a lo dispuesto en la Disposición Transitoria Tercera de la Orden de 14 de Junio de 1984 no podrán ser trasladados y continuarán realizando las funciones que venían desarrollando.
- Personal de enfermería, con título de especialista, que hubiese accedido a puestos funcionales correspondientes a la especialidad en Unidades donde se desarrollen funciones propias de Técnicos Especialistas, con anterioridad a la entrada en vigor del Real Decreto 450/2005, de 22 de abril que deroga las especialidades de enfermería.
- Personal del Grupo Profesional de Técnicos Auxiliares Sanitarios (D1), con destino en las unidades referenciadas con anterioridad a la entrada en vigor de la Orden de 14 de junio de 1984, que con base a lo dispuesto en la Disposición Transitoria Tercera de la Orden de 14 de Junio de 1984 no podrán ser trasladados y continuarán realizando las funciones que venían desarrollando.

Segundo.- Las Direcciones de Personal tomarán las medidas oportunas para el obligado cumplimiento de esta Instrucción, con plenos efectos en la primera quincena del mes de noviembre del presente año, sin perjuicio de que todas las coberturas de necesidades desde la fecha de su firma se realicen conforme a lo dispuesto en el apartado siguiente.

Tercero.- Las organizaciones de servicios deben de garantizar que cualquier sustitución o nueva incorporación en puestos de trabajo definidos por el desempeño de las funciones contempladas en los artículos 3 y 4 de la mencionada Orden Ministerial de 14 de junio de 1984, , así como las funciones que se deriven de los Reales Decretos formativos anteriormente mencionados y/o los que sustituyan será efectuada exclusivamente por personal perteneciente al Grupo Profesional de Técnicos Especialistas Sanitarios, sin ninguna excepción.

Cuarto.- La presente Instrucción, que deroga la Instrucción 1/2008, de 24 de mayo, será de obligado cumplimiento a partir del día siguiente al de su firma.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de julio de 2014

Fdo.: Jon Etxebarria Cruz
Director General de Osakidetza